

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

LURRALDEA ETA KLIMAREN ALDEKO EKINTZA SAILA

Jarduera sailkatuaren lizentzia eskatzea

Udalari jarduera-lizentzia eskatu diote honako pertsona hauek, leku hauetarako:

Dosier-zenbakia: 2019/LACACT00010

Eskatzailea: B01327915

Jarduera: Ikuskizun aretoa duen dantzalekua (okupazioa berriz kalkulatzea)

Kokalekua: Andre Maria Zuriaren Koroatzea, 4, behea

Horrenbestez, Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko 3/1998 Legearen 58. artikuluan xedatutakoaren ildotik, jendaurrean jartzeko epea zabaltzen da, jarduera horiek nola edo hala eragiten dietela uste dutenek horiei buruzko dosierrak aztertzerik izan dezaten —Lurraldearen eta Klimaren aldeko Ekintzaren Saileko Administrazio Zerbitzuan (Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25 behea), jendaurreko orduetan—, eta egokitzat jotzen dituzten alegazioak egin, hamabost eguneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu ondorengo lehenengo lanegunetik.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko irailaren 6an

Ingurumenaren eta Espazio Publikoaren administrazio-burua
EUSEBIO-MARTÍN MACHO PÉREZ